

• **NATURAGUNEEN  
ANTOLAKETA**  
Erreka-bazterren artatzea

• **TXOSTENA**  
Ikastetxe zaharra  
berpizten da

• **HURBILTASUNA**  
Bozka zerrendetan izena  
emateko urraspidea

2026  
URTE  
BERRI  
ON

MEILLEURS VŒUX • ZORIONAK  
• BONNE ANNÉE •



2026eko urtarrila

**EDITORIALA ..... 3**

**HERRIKO BIZITZA ..... 4 - 5**

**NATURAGUNEEN ANTOLAKETA**

Erreka-bazterren artatzea ..... **6-7**

**TXOSTENA**

Ikastetxe zaharra berpizten da ..... **8 - 9**

**GAZTERIA**

Arbonako ikastetxeen proiektuak ..... **10**

**ELKARTE BIZITZA**

Elkarteen ekintza ugari argitan ..... **11**

**HURBILTASUNA**

Bozka zerrendetan izena emateko urraspidea ..... **12 - 13**

**EGOERA ZIBILA / MINTZALEKUA ..... 15**

**2025. URTEARI BEGIRA ..... 16**



## IDEKITZEKO ORENAK

### **Arbonako herriko etxea**

10 route du Bourg  
64210 Arbonne  
Tél. 05 59 41 94 66  
[www.arbonne.fr](http://www.arbonne.fr)  
[mairie@arbonne.fr](mailto:mairie@arbonne.fr)

### **Irekitzeko ordutegia**

Astelehena 9h - 12h  
Asteartea 14h30 - 18h  
Asteazkena 9h - 16h  
Osteguna 14h30 - 18h  
Ostirala 9h - 12h

### **Argitalpen-zuzendaria**

Marie-José Mialocq

### **Erredakzio Batzordea**

Komunikazio batzordea

### **Argazki kredituak**

Herriko Etxea - Herriko elkarteak

### **Azala**

Delphine Elhorga

### **Inprimaketa eta diseinua**

Antza Komunikazio Grafikoa

### **Harremanetarako**

[communication@arbonne.fr](mailto:communication@arbonne.fr)



## Arbonar agurgarriak,

Urte hastapen honetan, zuetariko bakoitzari nire **osasun, zorion eta arrakasta agiantzarik zintzoenak** eskaini nahi dizkiot. Urte berria **mentura bihotz-altxagarriekin hasten da gure herriarentzat, Arbonaren erakargarritasuna erakusten duen demografia-dinamika positiboak eramanik.**

Gure biztanleriaren bilakaera menperatua seinale azkarra da. Gaur egun, **proiektu egituratzai-leak aurreikusteko eta gauzatzeko bidea eskaintzen digu, hala nola anitz igurikatua den farmaziaren lekualdaketa.** Funtsezko hurbileko zerbitzu horrek biztanleen egunerokotasuna hobetzean eta burgu barnearen bizkortasuna azkartzean parte hartuko du.

Gure herriaren aberastasuna eta bizkortasuna **elkarteen engaiamendu bikainean** ere oinarritzen dira. Kirol-, kultura-, elkartasun- edo ondare-elkarrekin oinarrituko eginkizuna betetzen dute gizarte lokarrian eta tokiko bizitzaren animazioan. **Haien ekintza elkar bizitzarako ezinbestekoa dela argi duelako, Herriko Etxeak sustatzen ditu,** besteak beste diru laguntzak esleituz eta muntadura egokituak haien esku utziz.

**Bestalde, garapen iraunkorrek gure herriko ekintza nagusietariko bat izaten segitzen du.** Ikastetxe zaharra ez suntsitzeko hautua hartzera eraman gaitu, hutsik ziren eraikinak abilki berrerrabiltzea hobetsiz. Urraspide horrek **gure ondare eraikia zaintzeko eta proiektu berrien ingurumen-eragina murrizteko bidea ematen du.** Ildo beretik, erreken artatze erregularra aitzina doa, Euskal Elkargoaren gerizan, gure naturaguneak hobeki begiratzeko eta uholde arriskuak saihesteko.

Azkenik, **2026. urtea demokrazia une handia izanen da herriko hauteskundeekin.** Arte horretan, herriko taldea guziz mobilizatua egonen da abiatutako proiektuak jarraitzeko, erantzuletasunez eta gardentasunez jokatzuz, eta beti entzuteko prest egonez.

Denei urte ederra opa dizuet, elkartasuna, konfiantza eta etorkizun partekatuen lelopean.

**2026. urte ederra denei!**

Zure Auzapeza

## ONGI ETORRI ARBONAR BERRIEI

Berriki jarri zara Arbonan. Gure herriari buruz gehiago ezagutzeko eta jakinean egoteko, honakoak egin ditzakezu:

- Gure webgunea bisitatu: [www.arbonne.fr](http://www.arbonne.fr)
- Berripaperean harpidetu
- Zure burua aurkeztu.

Berripaperean harpidetzeko: [communication@arbonne.fr](mailto:communication@arbonne.fr)



## MARGUERITE SCHWAB IKASTETXEKO HERRIKO JANTEGIA IREKIA DA

Herriko Etxeak atsegin handiz jakinarazten dizue **ikastetxe publikoaren jantegi berria irekia** dela. Ikastetxe berriarekin bat egiteko pentsatua izan den eraikinak ikasleei eremu moderno, argitsu eta goxoa eskaintzen die, bazkalorduari eskainia.

Erabilera anitzekoa izateko pentsatua izan denez, **jantegia elkarteen eta arbonarren esku ere utzia izan daiteke eskolaz kanpoko garaietan.**

Ekipamendu berri horrek **Herriko Etxeak bizi ingurumena eta herritarrei proposaturiko zerbitzuak beti hobetzeko duen xedea** agerian ezartzen du. Gainera, herriko taldeko agiantzak eremu berri horretan antolatuak izanen dira, herriaren bizkortasunaren eta berritzearen lekuko.

## IKASTETXEETAKO BAZTERRAK SEGURU EZARTZEA BIGARREN MAILAKO ERREPIDEAREN LUZERAN

**Herriko Etxeak bigarren mailako errepidearen luzeran kokaturiko ikastetxe bazterren segurtasuna azkartzeko antolaketak bukatu ditu.**

Alde batetik, RD 255 errepidean jarririko eskaera bidezko zirkulazio argiek oinezkoei segurtasun osoz zeharkatzeko bidea eskaintzen die Marguerite Schwab ikastetxerantz. Espaloiaren luzeran finkaturiko segurtasun hesiek dispositiboa osatzen dute haurren joan-jinak seguruago izan daitezten.

**Bestalde, argizko taulak jarriak izan dira Jondoni Laurendi ikastetxearen heinean, gidariak haurren presentziari sentsibilizatzeko, bi norabideetan.**

Ekipamendu guzi horiek bereziki arriskutsua den eskualde horren segurtasuna handizki indartzean parte hartzen dute.





## EZPAL BERRI-BERRIAK JOSTALEKURAKO!

Herriko Etxeak **jostalekuko ezpalek berritu ditu** hurrei lur ero-soago eta seguruago bat eskaintzeko asmoz. Naturalak izateaz eta ingurumena errespetatzeaz gain, **ezpalek erorikoak ezitzen dituzte, ttipiei egokituriko jostaleku goxoak eskainiz**. Orain, hurrek gune berritu horretaz gozaten ahal dute guziz eta abentura berriak bizi parkearen bihotzean.



## ETORKIZUNeko BURGUko FARMAZIAREN PROIEKTUA ZEHAZTEN ARI DA

Farmazia bat burgu barnean sortzeko proiektua urrats nagusi batera iritsi da. **Alabaina, urte hastapenean Frantziako Estatistikaren eta Azterketa Ekonomikoen Nazio Institutuak eginiko erroldak 2027ko urtarrilaren 1ean Arbonako herriak 2 500 biztanle baino gehiago bilduko dituela berretsi du**. Zenbaki hau ezinbesteko baldintza da farmazia jartzeko beharrezko lekualdaketa baimena lortzeko.

**Etorkizuneko farmazia gaur egun herriko liburutegia dagoen lokaletan jarriko da**. Liburutegia laster lekualdatuko da ikastetxe zaharreko eraikin batean, biztanleen zerbitzuko diren herriko ekipamenduen berrantolaketa koherentea ahalbidetuz.

Eraikitze baimena jadanik lortua izan da farmaziaren etorkizuneko lokalak antolatze gisan. Herriko Etxea aspaldi igurikatzen duzun proiektu egituratzaile horren aitzinatzeaz poztzen da. **Farmazia bat irekitzeak hurbileko artak ukaiteko eta herritarren eguneroko beharrei erantzuteko bidea indartuko du, burgu barnearen bizkortzean ere parte hartuz**.



## BERRITASUNA HERRIKO LIBURUTEGIAN: 3D IKUSMENEKO KASKO BAT MAILEGUAN!

**Abendutik goiti, herriko liburutegiak publikoaren esku ezartzen du 3D ikusmeneko kasko bat, murgiltze-esperientzia paregabea bizitzeko**. Ekipamendu horri esker, errealitate birtualerako bereziki sortuak diren filmak ikusten ahalko dira, eta edukiak beste bide batez ikusi: dokumentalak, animazio filmak, bisita birtualak...

Kaskoa esku utzia da departamenduko liburutegiaren maileguari esker.

Bertan erabilia izaten ahalko da, horri eskainiriko ordu tarreetan, edo maileguan hartu mediatekak erabakirik baldintzen arabera (xehetasunak lekuan berean edo telefonoz).

Herriko liburutegia: 05 59 41 89 85


# NATURAGUNEEN ANTOLAKETA

## ERREKA-BAZTERREN ARTATZEA, EZINBESTEKO LANA UHOLDEAK MURRIZTEKO

Ziburia auzotegian, **errekek eta ubideek funtsezko betekizuna dute**: hezeguneko ura drainatzen dute eta eskualdea uholdeetatik gerizatzen dute. Dena ongi ibil dadin, erreka-bazterrak maiz artatu behar dira.

Ur-bazterreko bizitzaiak jabeak erreka maiz artatu behar du.

Besteak beste, landaredia artatu behar du, ur-jariatze libroa tratatzen duten porroskak eta metaketak kendu behar ditu. Zaintza lan hori egin behar da ur-bazter gainaldetik erreken ohe erdiraino jabego pribatuetan diren errekei dagokienez, lurraldean ugari direnak.



eshana nazazu.

Erreka bat jabego pribatuan edo publikoan denetz ez badakizu, Euskal Hirigune Elkargoko Erreken Kudeaketa zerbitzuko teknikariek jakinaraz diezazukete (helbideak 8. orrialdean).

<https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/leau/les-cours-deau-et-bassins-versants>


### Zergatik erreka-bazterrak artatu?

Legeak gogorarazten du **ur bazterreko bizitzaiak le guziak landareez arduratu behar direla eta ura oztopa dezaketen trabak kendu behar dituztela** (zuhaitz hilak, metatzeak, hondakinak...).

Artatze lan on batek honakoak ahalbidetzen ditu:

- isuri hobea segurtatzea,
- gaintzeak murriztea,
- hezegunea eta horren naturaguneak begiratzea.

### L'espace de bon fonctionnement des cours d'eau



Euskal Elkargoaren webgunean, **gidaliburu simple bat ezarria da biztanleen esku**, "Erreka artatzen dut nire jabegoan" atalean.

<https://www.communaute-paysbasque.fr/eau-environnement-energies/jentretiens-le-cours-deau-sur-ma-propriete>



### Zer egiten du Euskal Elkargoak Ziburian

Biztanleak laguntzeko eta auzotegia seguru ezartzeko, **Euskal Elkargoak maiz esku hartzen du ubide eta erreka ttipietan**, besteak beste Interes Orokorreko Deklarazioari esker (IOD).

Elkargoko taldeek **biztanleekin hitzartuz lan egiten dute eta uholdeen arrisku handieneko eskualdeetan esku hartzen dute nagusiki**.

Norberari egokituriko arau eta teknika mailako aholkularitza zerbitzu bat ere eskuragarri dago: **teknikari bat etor daiteke erreka-bazter bat, isuri arazo bat edo higadura hastapen bat aztertzeko, eta aterabideak azaltzeko**.

Harremanetarako:

Erreka eta arro hidrografikoen zuzendaritza: Putillenea karrika, 5-7. – 642122 Urruña

Gabin WIMART – Erreken teknikaria

[g.wimart@communaute-paysbasque.fr](mailto:g.wimart@communaute-paysbasque.fr) – 05 59 48 30 85



## ZIBURIAN BERRIKI EGINIKO LANAK

Azken aste hauetan, **Euskal Elkargoko taldeek esku hartu dute Ziburia bideko zubiaren ondoan**. Zenbait artatze lan eginak izan dira isuriak hobetzeko eta auzotegia seguru ezartzeko.

*LEHEN/ORAIN ARGAZKIEK ARGIKI ERAKUSTEN DUTE LAN HORIEN EMAITZA.*



**Ur-bazterreko basoa, erreka baten edo, orokorkiago, gune heze baten hegietan den landaredi multzoa da.**

Landaredi honen artatzearen helburua da ur-jariatzea ahalbildetzea, erreka-aren ohea landarediaren kolonizaziotik babestuz (zuhaitzak, zuhaixkak edo sasiak). Bakoitzak du bere eginkizuna...

Ekintza horiek **Euskal kostaldeko Uholdeen Prebentziorako Ekintza Planen (UPEP) harira eramana dira.**

Ikusteko ere: TVPI erreportaia: UPEPak, uholde arriskuei buru egiteko tresnak.

<https://www.sudouest.fr/lachainetvpi/a-la-une/videos/2025/10/28/3xvk50k>



## Uholdeen prebentzioa: aldatuz doan plana

2003ko uztailaren 9an onarturiko Uholde Arriskuaren Prebentzio Plana (UAPP) estatuak 2024ko azaroaren 5eko erabakiaren bidez aginduriko berrikuspen baten gaia izaten da. Berrikuspena arauzko zonakatze proiektu baten 2024ko irailaren 19ko aurkezpen baten ondorioz eramana da. Proiektuak gorabeherako eremuen zabaltzea agerian ezartzen du zango baloi aldagelen hego-mendebaldearen puntan, Herriko Etxeak baieztaturiko bigarren mailako errepidearen luzeran.

Uholde batekin zerikusirik ez duen 2024ko urriaren 10eko argazki bat helarazia izan zaie estatuko zerbitzuei. Argazkia oinarritzat hartuz, neurriak aurreikusitako izan dira hastapen batean, teknika arrazoi sakonik eta aitzin hitzartzerik gabe. Bi dimentsioko modelizazio hidrauliko batean oinarrituriko ikerketak egin beharko dira gorabeherako zonakatze horren errealitatea objektiboki estimatzeko.

UAPP berria aplikagarri izanen da hurrengo urteetan aurreikusitako prefetaren erabakiak ofizialki onartu ondotik.

**Orain, Marguerite Schwab ikastetxea guziz operatiboa da eta Arbonako haurrak aterpetzen ditu baldintza moderno eta egokietan.** Lan nagusi horrek herriko historiaren orri berri bat irekitzen du: **ikastetxe zaharren eraikinak**, gaur erabili gabeak, berrantolatuak izanen dira herriko lau lehentasunei erantzuteko - **elkarte bizitza sustatzea, mediatekari leku berri bat eskaintzea, haurtzaindegia burgu barnean berriz kokatzea eta jabegora heltzeko bidea erraztea.**

Ikastetxe berriaren eraikitzea urrats handia izan da Arbonako herriarentzat. Ikasleen, irakasleen eta eskolaldi inguruko zerbitzuetako langileen ongizaterako pentsatua izan den ekipamenduak gaurko estandar guzietan erantzuten die. Baina ikus daitekeen eraikuntzaz gain, beste erronka bat dago: eskola-lokal zaharrak berpiztea **biztanle guzietan baliagarri zaien dinamika** batean sarraraziz.

## JABEGORA HELTZEKO BIDEA ERRAZTEA

Azkenik, jantegi ohiko eraikina Hego Atlantikoko Bizilekuari utzia izan zaio, Euskal Hirigune Elkargoari eratzirikiko bizilekuaren operadore publikoa. **Bertan, hiru bizitegi berri antolatuak izanen dira eta jabegora heltzeko bidea errazteko dispositibo baten harira proposatuak.** Etxe merkatu biziki tirabiratsua den egoeran, ekintza hori gaurko zailtasunei erantzuteko aterabide zehatza da.



## ERABILERA ANITZEKO BI GELA GEHIAGO ELKARTEENTZAT

Elkarte egitura gure herriko funtsezko aberastasuna da. Boluntarioen engaiamenduak eramanik, gizarte lokarria sortzen du, elkartasuna sustatzen eta tokiko bizitza animatzen. Orain arte, lokalen arazoak jarduera batzuen garapena oztopa zezakeen. Laster, hertsadura hori desagertuko da.

**Lehenago haurtzaindegia edo « eskola ttipiaren » eraikina osoki berriz pentsatua eta birgaitua izanen da, elkartei eskainitako erabilera aintzeko bi gela aterpetzeko, gela bat Primaderak duelarik baliatuko.**

Eremu horiek, modernoak eta erosoak, biltzarrak antolatze-ko edo publikoa eta kideak errezibitzeko erabiltzen ahalko dira urte osoan zehar. Leku sinbolikoa den aterpea beti alaituko dute **udako pilota txapelketek.**





## MEDIATEKA GUSTURA DABIL

Arbonako kultura-egitura dinamikoetariko bat den herriko mediatekak abonatu ugari biltzen ditu gaur egun. **Laster gaurko lokalak utziko ditu ikastetxe zaharren anarteko eraikinaren lehen solairuan jartzeko.**

Kokapen berriak zabalago, erabilgarriago eta gaurko erabilerei egokituago diren eremuz gozatzeko bidea eskainiko die erabiltzaileei, topaketa, irakurketa eta kultura gune horren erakargarritasuna indartuz.

[www.bibliotheque-arbonne.fr](http://www.bibliotheque-arbonne.fr)



## HAURTZAINDEGIA BURGU BARNERA ITZULTZEN DA

Mediateka aterpetuko duen eraikin beraren behean, Frida Kahlo elkarte moduko mikro-haurtzaindegia burgura itzuliko da zenbait urtez Haietako bidean egon ondotik. Klein elkarteak kudeaturik, **lokal moderno eta erabilgarriak ukanen ditu haur ttipiak baldintza hobereetan artatzeko.** Ikastetxe berriaren ondo-ondoan berriz kokatuz, familien bizitza erraztuko du eta herriaren bihotzean lehen haurtzaroari eskainiriko gune bat sortzea ahalbidetuko du. [www.celeste-klein.fr/frida-kahlo-arbonne](http://www.celeste-klein.fr/frida-kahlo-arbonne)



## PODCAST BAT MARGUERITE SCHWAB ANDEREA-REN OROITZAPENA OHORATZEKO

Aurten, ikastetxe publikoko lehen mailako 4. eta 5. urtekoak **Marguerite Schwab** anderearen historia inspiragarrian murgilduko dira, bigarren mundu gerlan Arbonan neskatxa juduak babestu zituen. Sophie Macazaga zuzendariak bultzaturik, **Arbonako familiei eta ondoko be-**

**launaldiei zuzenduriko podcast bat prestatzen ari dira.**

Azaroaren 7an, ikasleek haien oroitzapenak partekatzea etorri ziren zenbait lekuko ezagutu zituzten. Fernand Léréte, Jean Léréte baserritar ohiaren semea eta Erresistentzia sarearen sustengu; Thérèse Perez, Marguerite Schwab ezagutu zuena, eta Christiane Urkia, ondarearen ardura duen axuanta, tokiko historia aberasten segitzen duena.

Jakin-minez eta arretaz, ikasleek galdera ugari egin dituzte garai hura ulertzeko, beren adineko haurrak



kukuturik bizi zirelarik, izen faltsuak hartuz. APJH etxearen bisitari esker, neskak bizi eta Marguerite Schwab eta Marie Rospide andereen ekintza adoretuak irudikatu ahal izan dituzte.

Marguerite Schwabek **“Justu nazioen artean” medaila** jaso zuen, erakutsi zuen ohiz kanpoko adorea-ren lekuko. Hilartitz bat ere idatzia izan da ikastetxearen aitzinaldean.

## HATS BERRI BAT JONDONI LAURENDI IKASTETXEARENTZAT

Guraso elkarte eta Irakaskuntza Katolikoaren Kudeaketa-Erakundea **proiektu ausart** batean engaiatzen dira: **ikastetxe pribatu elebiduna zaharberritzea ikasleei irakaskuntza ingurumen seguruagoa eta gaurko beharrei egokitu eskaintzeko xedez.**

Aurreikusiriko obrak honakoak izanen dira: hegaztegia goitik behera berritzea, jostalekua antolatzea gune goxoa, landareztatua eta segurua sortzeko haurrentzat, eta lokalak helgarri egitea ikasle guziki baldintza hoberenetan errezibitzeko gisan. Proiektua elkartasun eta berrikuntza gogoarekin eramana da, Eraikuntzako Zuzendari Gazteen Goi Mailako Eskolako NAQ 30 urtekoekin elkarlanean.



### Nola sustatu proiektu hori?

Zaharberritzea bururaino eramateko, denen eskuzabaltasunari dei egiten zaio lineako diru bilketa baten bidez. Parte hartzeko: HelloAsso – Projet École d'Arbonne.

### Ate irekiak

Ikastetxeak **ate irekiak antolatuko ditu 2026ko urtarrilaren 31n, larunbata**, ikasgelak, heziketa taldea eta proiektu pedagogikoak aurkezteko.

### Jondoni Laurendi ikastetxearen besta

**2026ko martxoaren 28an iraganen da, larunbata, Bil Tokin, euskal kultura gaiaren inguruan.** Egitaraua: erakusmahaiak, ekitaldiak, bazkaria eta lagun arteko unea, denei irekia.

## ALHORGA IKASTOLA BISITATU

**Arbona eta Ahetzeko Alhorga ikastolaren ate irekiak urtarrilaren 31n iraganen dira, 10:00etatik 12:00etara.** Irakasle taldeak ikasgelak eta proiektu pedagogiak ezagutzera gomitazten zaituzte.

Guraso elkarteak joan den udan Arbonako besten igandeko **“aingira bazkarian” parte hartu duten guziki eskertu** nahi ditu. Antolatzaile boluntarioek eta saldoan hurbildu ziren gomitek adiskidetasun une atsegina eta ederra pasa zuten.

## BOZKA ZERRENDETAN IZENA EMAN

Herriko hauteskundeak 2026ko martxoaren 15 eta 22an iraganen dira. Bozkatu ahal izateko, ezinbestekoa da bozka zerrendetan izena ematea.

Izena emateko epemuga: linean, 2026ko otsailaren 4a, asteazkena, edo herriko etxean paperezko inprimakiaren bidez, 2026ko otsailaren 6a arte, ostirala.

Nola eman izena: [www.elections.interieur.gouv.fr](http://www.elections.interieur.gouv.fr) webgunean edo herriko etxean.

### Behar diren dokumentuak

Indarrean den nortasun agiri bat (nortasun agiria edo pasaporte).

Eta hiru hilabete baino guttiagoko bizilekuaren frogagiria (elektrizitate faktura...).

### Nork eman behar du izena?

- 18 urte bete dituzten gazteak, automatikoki ez direlarik zerrendan sartuak izan.
- Izena nehoiz eman ez duen oro.
- Berriki herrian bizitzera etorri direnak

ÉLECTIONS  
MUNICIPALES  
2026



## AHALORDEA - Nola ibiltzen da?



1

Zure mandatariaren [bozkatzaile-zenbakia](#) eta sorteguna bil itzazu, edo bestela bere egoera zibileko datu guztiak eta bere bozka-herria



2

Zure ahalorde-galdea egin ezazu internet bidez, sinple-sinplea da



3

Polizia-etxera, jendarmeriara edo kontsulatura joan zaitez zure [nortasuna egiaztatzeko](#) eta zure ahalordea baieztatzeko



4

Zure ahalordea onartu bezain laster e-mail bat eskuratuko duzu

Zerrendetan ongi sartua zarela egiaztatzen ahal duzu [www.elections.interieur.gouv.fr](http://www.elections.interieur.gouv.fr) webgunean



**2G LASTER  
BUKATUKO DA:  
ZURE SAKELEKOA  
EGOKITU**

Orange operadorea 2G sarea pixkanaka gelditzen ari da. Gure eskualdean, mozketak 2026ko martxoaren 31n izanen da, eta 2026ko maiatzaren 12an Ipar Euskal Herri osoan. Soilik 2G sarearen bidez ibiltzen diren sakelakoek ezin izanen dute deirik edo mezurik jaso edo bidali.

**Zer egin?** 4G/5G sareari egokitua den sakelako bat hartu. Zure telefonoa bateragarria den segurtatzeko edo aholkuak ukaiteko, zure operadorearekin harremanetan sartu mozketak iragan aitzin.

## BIZITEGIA ZAHARBERRITZEA, ERRAZAGOA DA



Zaharberritze proiektu bat baduzu? Ipar Euskal Herriko Bizilekua eta Energiaren Etxeak laguntzen zaitu urririk Baionan eta Donapaleun.

### Zertarako da Bizilekuaren Etxea?

Biztanleak haien bizitegiaren zaharberritzeari buruz informatzeko eta aholkatzeko leihatila bakarra da.

### Aholkulariek honakoak proposatzen dituzte:

- Teknika, lege eta administrazio mailako aholkuak
- Profesional kalifikatuengana bideratzea eta zure proiektuaren azterketa, laguntzak optimizatuzko, Euskal Hirigune Elkargoak esleitzen dituen laguntzek osaturik.

### Argibideak - Baiona

Harizpe Marexalaren etorbidea, 3.

05 59 44 77 80 – [maison.habitat@communaute-paysbasque.fr](mailto:maison.habitat@communaute-paysbasque.fr)

## PROIEKTU BERRI BAT AIRATZEN DA...HEGOAK MENDIAN ELKARTEA BRASILERA DOA!

**2026ko martxoan, Nathaliek bere ametsetariko bat beteko du:** joëlette motako aulki batean ehun bat kilometroko lasterraldi bat egin Ilha Grande uharte miresgarriaren basa oihan eta mendietan gaindi.

Kari horretara, Hegoak Mendian elkarteak bere Brasilgo kidea den Coletivo Inclusão elkarte lagunduko du material egokitu eskainiz.

**Giza-, kirol- eta elkartasun-abentura polita!**



## ZER BERRI ARBONAKO ZANGOI BALOI ELKARTEAN

Urtero bezala, **gure elkarteak 270 lizentziadun biltzen ditu, horietako 200 haurrak direlarik.** Gure elkarterako oldarra berriz erakusten duen zenbakia, gure hezitzaileek daramaten kalitatezko lanari esker. Arrakasta horrek defendatzen ditugun baloreen egokitasuna eta gure kirol- eta heziketa-proiektuaren erakargarritasuna berresten du.

Baina horrek **ez du gure kezka lasaitzen** kirol-muntadurei dagokienez. Gure zelaia zaharkitua da eta oraindik erabiltzen dugu soilik federazioko instantziek baimen berezi bat ematen digutelako. Elkarte kide guztiak, hala jokalaria nola boluntarioak, kezkatzen dituen egoera ezegonkorra da.

**Kirolerako eta gazteen formakuntzarako suharta-suna izaten da beti akuilatzen gaituena,** baina ez du balio ez badugu arauen araberrako jostalekurik. Estadio bat zaharberritzea proiektu korapilatsua eta karioa da, argi dugu. Nehoiz baino gehiago, gure elkartearentzat funtsezkoa den arazo horri laster aterabide bat emanen zaiola espero dugu.

**Mila esker gure elkarteak sustatzen eta gure gazteak etorkizunerako bidean laguntzen dituzten guziei.**

Aupa Arbonako zango baloi elkarteak!

## ARRAKASTA HANDIA BILDU DU ARBONA ETA AHETZEKO SOINKETA ELKARTEAREN QI GONG KLASE BERRIAK

Qi Gong mugimendu eztiak, arnasketa teknikak eta meditazioa nahasten dituen arte txinatarra da.

“Qi” hitzak “bizi-kemena” erran nahi du, eta “Gong” hitzak “lana” edo “jarduera”.

**Qi Gong artearen xedea da kemen hori lantzea eta harmonizatzea, gorputz eta buru osasuna sustatuz: herstura eta antsia ttipitzea, giharrak eta junturak indartzea, jarrera eta oreka hobetzea.**

Astelehenetan Arbonan (Elkarteen Etxeko gaineko gelan) 18:30-19:30

Ostegunetan Ahetzen (Denen Xokoa gelan) 16:00-17:00

Elkarteko klase guzietan buruzko argibideak: [gym.arbonne.ahetze@gmail.com](mailto:gym.arbonne.ahetze@gmail.com)



## AEK GAU ESKOLAREN SARTZEA


Euskarari atxikimenduaren beste froga. **Sartze honetan, 46 ikaslek dituzte Gau Eskolako klaseak segitzen.** Lau maila proposatuak dira hasiberrietatik hobetzeko klaseetara. Asteko gau guziz, Arantzola etxea bizi-bizia da eta lau irakasleak bizkortasun horretaz pozten dira. **Ikasle guziak motibatua dira eta giro goxoa atsegin dute.**

## Exposition Saison 2026

RENCONTRES  
CULTURELLES

LA BENOITERIE  
D'ARBONNE

To  
Pa  
Ketak



Topaketak elkarteak 2026. urte ederra opa di-  
zue! Zenbait ustekabe daude zuen zain...

Urtero kultura-topaketak antolatzen ditugu  
Andere-Seroraenean, Arbonako burgu bar-  
nean historiaz josia den leku biziki polita.

Zenbait hitzordu proposatzen dizkizuegu **api-  
riletik abendura plastiko-artisten lana eza-  
gutzeko (eltzegile, marrazkilari, margolari,  
argazkilari, zizelkari, ehule) baita arte bi-  
ziak ere (antzele, kontalari, musikari).**

Erakusketak kari, **Andere-Seroraenea ire-  
kia izanen da ostiral eta larunbatetan,  
15:00etatik 19:00etara, eta igandetan  
10:00etatik 17:00etara.**

Ekitaldien berri aurkituko duzue [www.topa-  
ketak.fr](http://www.topa-<br/>ketak.fr) webgunean eta @labenoiterie Insta-  
gram orrialdean.

Ekitaldi bakarra ere ez galtzeko, be-  
rri-paperean harpidetu.

**Ongi Etorri!**



### IKASTETXE PUBLIKOKO GURASO ELKARTEA: GIZARTE LOKARRIA SORTZEA ETA IKASTETXE PUBLIKOA SUSTATZEA

**Ikastetxe publikoko guraso elkarteak herrian gizarte lokarria sortzeko xedea du ikastetxe publikoaren inguruan.** Ekitaldiak eta diru bilketak antolatzen ditu ikastetxeko proiektuak diruztatzeko. Iaz, guraso elkarteak Halloween besta bat antolatu zuen herriko plazan kontzertu batekin eta hau-

rrendako jarduerekin, arrakasta handia bildu duen ekitaldia. Aurten, elkarteak zenbait jarduera antolatu ditu, hala nola kontzertu bat herriko plazan udaberriko egun ederretan.

Eginiko indarrei esker, **guraso elkarteak 9 000 € eskaini dizkio aurten ikastetxe publikoari**, iaz 9 820 € eskaini ondotik. Diru horrek kultura- eta kirol-ateraldiak diruztatzeko bidea eman du: iaz eskiatzeko egonaldi bat, eta datorren martxoan bizikleta egonaldi bat.

**Guraso elkarteak elkartasun eta inklusio baloreak sustatzen ditu, heziketa- eta gizarte-ingurumen dinamiko batean parte hartuz.** Mila esker elkartekide, guraso, irakasle eta arbonar guziei haien sustenguzatik!



### KIROL ANIZTASUNA

**Mugitzeko edo sortzeko gogorik? Kirol aniztasunak adin guzietarako egokituriko jarduerak proposatzen ditu!**

Besteak beste: haurrendako arte plastikoak urte osoan zehar (astelehenetan, 17:00-18:30), beti arrakastatsua den judo jarduerak, soinketa 3 urtetik goiti, Pilates klaseak tarte desberdinekin, astearte eguerditan bat gehitua izan delarik.

**Berritasuna urtariletik goiti: yoga ezta eta luzaketak ostegunetan 18:30ean, maila guzietarako irekia.**

Izena eman daiteke urtariletik aitzina hurrengo hiru hilabetekoetarako. Probatzeko saioak eta elkarte-prezioak, ahal bezainbat pertsoneri atea zabaltzeko gisan.



## 17 SORTZE

Philippa LARDEUX, Kamila AMINE, Helena FORTEA NAVARRO, Alden BERTRAND, Antton BARNECHE HUBY, Mattin BÉRASATÉGUI, Zachary MINEO ZITOUNI, Emy PROUST APECECHEA, Helena BAILLY LORMANT, Oihan DOKHELAR, Maya FELLAY, Aitor LAGRILLE, Paola HARGOUS, Joséphine GARCIA CUENCA, Evan BARRÉ PRIOLET, Jeanne CHOLET, Mahaut BRENGUES CHALMIN

## 8 EZKONTZA:

Patricia LAMOULIE eta Jean-Louis ALBENTOSA

Virginie COVILLE eta Henri BERGOT

Manon URBAN eta Clément BLANCHARD

Mahaut CELEYRON eta Pierre-Marie ROBERT

Nathalie DUBACQUIÉ eta Cyril DARRIEUMERLOU

Juliette DUPLANTIER eta Luc NEVELS

Pascale NOUHIDE eta Florent HUSTAIX

Péroline ROBERT eta François-Gabriel PERCIE DU SERT

## 48 HERIOTZA:

Marie-Thérèse GRARDEL, CAULLIEZ alarguna; André TELLECHEA; Françoise THOMAS, TERRASSE alarguna; Marie-Thérèse GRIMEAUD; Monique MASSÉ, SENARD alarguna; Jean-Michel JAURETCHE; Jean-Pierre ROUX; Jacqueline DESTRESSE, HIRSCHLER alarguna; Nicole SOUCHE, COURTHIAL alarguna; Huguette RULENS, BRUNEAU alarguna; Jacques DUBERT; Jeanne BOUDIN; Odile LARRALDE, HOUSSET esposa; Paulette JAGOT, LAMOTHE alarguna; Jeanine COUTAZ, GENOT esposa; Micheline MONGIN, MOLLARD alarguna; Jérôme BRETHÉ; Marcel ITURBURUA; Jacques RAYET; Angèle ALZA, HABIERSKA alarguna; Jacques GUILLEMAIN; Virginie DARBOURE; Maité MANIORT; Georges LOCHE; François DARMAILLACQ; Isabelle DARQUY, RAMOS esposa; Pierrette DOUBINGER, HAYOT alarguna; Marie HÉGOAS, PEIGNEGUY alarguna; Dominique MAQUE; Michèle BOYER; Andrée BOUFFETEAU, MARSAUDON alarguna; Irène AYEZ, FERLIN esposa; Paulette MORNET, IPPOLITO alarguna; Marie-Thérèse BISCAR; Berthe FAUCIÉ, JOUVET alarguna; BLIÈS Jean-Pierre; CAZENAVE Jean Henri; YUNG Jean Pierre; Joséphine IRAZOQUI, GOYARD alarguna; Andrée LE GRUMELEC, BOTERF alarguna; Ginette BOSREDON, PORET alarguna; René CARPY; Claude LORIN; Philippe WACKERNIE; Anne BRISMAILLE, DUVAL alarguna; Yvette CLAVIER; Marie-Jeanne CHAY, LAFONT alarguna.

## OPOSIZIOAREN MINTZALEKUA

### HATS BERRI BAT ARBONARI TALDEAREN MINTZALEKUA

Argitaratu gabe utzia izan den testua, gezurrezko, osatu gabeko edo ordena publikoaren kontra ari diren pasarte batzuren gatik. Erantzunik gabe gelditu den zuzenketa eskaera bat egina izan da.